

01/2014 UDALEKO OSOKO BILKURA

2014KO URTARRILAREN 27AN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA:

Pedro M^a Estanga Lasa

ZINEGOTZIAK:

Maialen San Sebastian Kortajarena
Izaskun Jáuregui Saizar
Aitor Gurrutxaga Aranzasti
Aratz Luisa Urkola
Mikel Ayerbe Gallurralde
Kepa De la Iglesia Sánchez

IDAZKARIA:

Nekane Agirresarobe Etxeberria

Anoeta Hiriko udaletxean, 2014ko urtarrilaren 27an arratsaldeko seirak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkate jaunaren Lehendakaritzapean eta alboan adierazitako zinegotziekin; Miren Josune Eizmendi Manterola zinegotzia lana dela eta ezin etorria adierazi du, M^a Carmen Egurza Salaberria zinegotzia ez du ezin etorria adierazi eta Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea, Idazkari lanetan aritu naiz.

1.- 2013KO AZAROAREN 15EAN ETA ABENDUAREN 30EAN OSPATURIKO AKTAK ONESTEKO PROPOSAMENA.

2013ko azaroaren 15ean eta abenduaren 30ean ospaturiko aktak irakurri eta aho batez onartuak izan dira.

2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2013KO AZAROAREN 18TIK ABENDUAREN 27A BITARTE, BIAK BARNE, 405 ZENBAKITIK 467 ZENBAKIRA ETA 2014KO URTARRILAREN 2TIK 15A BITARTE, 01 ZENBAKITIK 14 ZENBAKIRA BIAK BARNE.

2013ko azaroaren 18tik abenduaren 27a bitarte, biak barne, 05 zenbakitik 467 zenbakira eta 2014ko urtarrilaren 2tik 15a bitarte, 01 zenbakitik 14 zenbakira biak barne, bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, Korporakideek jakinaren gain geratuz.

3.- 1/2014 SENTENTZIAREN BERRI EMATEA

Korporazioak badu 1/2014 sententziaren berri, EAeko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandakoa 162/2013 apelazio-errekurtsoari erantzunez.

Apelazio-errekurtso hori jarri zen Administrazioarekiko Auzien Donostiako 1. Epaitegiak 2012ko azaroaren 5ean emandako sententziaren aurka, eta sententzia hori eman zuen 1045/2010 administrazioarekiko auzi-errekurtsoari erantzunez. Auzi-errekurtso horretan Anoetako Udalaren aurka jotzen da BPXPORT KIROL ZERBITZUAK, S.L enpresak egindako 30-2010 eta 83-2010 fakturak ez ordaintzeagatik. Faktura hauek Udal Kiroldetik Kudeaketa Integraleko Zerbitzua emateko kontratuaren ondorioz egin ziren. Beraz, 1/2014 sententzia horrek honela dio:

“Que debemos desestimar y desestimamos el recurso e Apelación formulado por BPXPORT KIROL ZERBITZUAK; S:L contra la Sentencia nº 241/2012, de 5 de noviembre, dictada por el Juzgado d elo Contencioso Admnsitrativo nº 1 de los de Donostia-San Sebastián en el Procedimiento Ordinario nº 1045/2010 y, en consecuencia, la confirmamos.

Las costas procesales se imponen a la parte apelante.

Esta sentencia es firme y contra la misma no cabe recurso alguno.”

4.- BABES OFIZIALEKO ETXEEN ESLEIPENA

Ikusi da RA-C partzelan, A-14 "Lasarbe" Sektorean, proiektatutako Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko 26 etxebizitza adjudikatzeko espedienteak. Construcciones Aburuza, SA enpresak sustatuko ditu eta bigarren deialdiko oinarriak onartuak izan ziren 2013ko urriaren 4ko Osoko Bilkuran.

8 etxebizitza Eusko Jaurlaritzak esleitu zituen eta bat Construcciones Aburuza, SA enpresak.

Ondorioz, 2013ko azaroaren 25eko Osoko Bilkuran onartu ziren bigarren deialdiko (17 etxebizitza) onartuen eta baztertuen zerrendak.

ONARTUAK:

Eskatzailearen NAN	Kide-kopurua	Ezintasuna
<u>72.090.235R/</u> 15.221.290-M	2	ez
72.512.531-M	1	ez
72.515.438-A/ 72.315.806-B	2	ez
72.511.743-B	1	ez

BAZTERTUAK:

BAT ERE EZ

2014ko urtarrilaren 16an, udaletxean, Nekane Agirresarobe Etxeberria idazkari kontu-hartzailearen aurrean egin zen zozketa publikoa, 2012ko urriaren 15eko Aginduan ezarritako prozedura jarraituz. Honako etxebizitza hauek esleitu ziren behin-behinean:

Eskatzailearen NAN	ETXE BIZITZA
<i>72.090.235R/ 15.221.290-M</i>	2E
<i>72.512.531-M</i>	3D
<i>72.515.438-A/ 72.315.806-B</i>	2D
<i>72.511.743-B</i>	2C

2014ko urtarrilaren 24an, sarrera-erregistroko 123 zenbakia duen idatzia aurkeztu zuen 72.512.531-M NA duen esleipendunak, eta behin-behinean esleitu zitzaion etxebizitzari uko egin zion, 3D pisua hain zuzen.

Udalak egin duen bigarren deialdi honen ondoren, 13 etxebizitza geratu dira esleitu gabe, eta behin-behinean esleitu diren 4 etxebizitzetatik bati egin diote uko.

Ikuisirk, 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa, non, besteak beste, 43. artikuluko 1 eta 2 atalak honela dioten:

“1.- Ez da sustapenaren itxaronzerrendarik egingo

2.- Sustatzaileak indarreko araudiak xedatutako baldintzak betetzen dituen edozein pertsonari edo bizikidetzta-unitateri besterendu ahal izango dizkio hutsik geratu diren etxebizitzak, banan-banan”.

Bertaratuek aho batez onartu dute:

Lehena- 72.512.531-M NA duen izangaiaren uko-egitea onartzea, 3D etxebizitzarena eta bere eranskinena hain zuzen ere.

Bigarrena.- Behin betiko esleitzea jarraian doazen etxebizitzak, beren eranskinekin (garajeak eta trasteroak), eta modu honetara:

Eskatzailearen NAN	ETXE BIZITZA
72.090.235R/ 15.221.290-M	2E
72.515.438-A/ 72.315.806-B	2D
72.511.743-B	2C

Hirugarrena.- Ahalmentzea RA-C partzelan, A-14 "Lasarbe" Sektorean, proiektatutako Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko 26 etxebizitzaren sustatzailea izango den Construcciones Aburuza, SA enpresa esleitu gabe geratu diren 14 etxebizitzak esleitzeko, dagozkien eranskinekin (garajeak eta trasteroak). Esleipenak 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 43. artikuluko 2. atalean ezarritakoaren arabera egingo dira.

Laugarrena.- Akordio hau jakinaraztea interesatuei, Construcciones Aburuza, SA sustatzaileari eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikarako Departamentuari.

5.- BILDU TALDEAK, “EMAKUMEEN AUTONOMIAREN ETA ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN DEFENTSAN” AURKEZTURIKO MOZIOA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Bildu talde politikoko zinegotzia den Maialen San Sebastian Kortajarena andreak, Euskal Herria Bilduk aurkezturiko ondorengo mozioa irakurtzen du:

“Emakumeen autonomiaren eta erabakitze eskubidearen defentsan. Aurreko abenduaren 20an, Estatu espainolean PP buru den Ministroen Kontseiluak “Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako” Lege Organikoaren aurreproiektua onartu zuen, egungo osasun sexual eta erreproduktiboaren eta borondatezko haurdunaldia eteteko 2/2010 LO aldatuz. Aldaketa horrek emakumeen autonomiaren kontra egiten du bete-betean edo, bestela esanda, oinarritzko giza eskubide gisa onartutako eskubide sexual eta erreproduktiboaren aurka (). Hamarkadako borrokaren bidez lortutako eskubidea zartada batez ezabatu nahi dute: emakumeek beraien bizitza sexual eta erreproduktiboaren inguruan erabakitze eskubidea izatea, alegia, inolako*

tutelarik eta jarraipenik gabe. Egin asmo duten kontrarreformak emakumeen autonomia urratu, emakumeen heldutasuna, erabakitze gaitasuna eta ardura ukatu eta infantilizatu egiten ditu, abortatu ahal izateko beste batzuekiko menpekotasuna ezarriz. Hala, emakumeon gorputzak Estatuak eta medikuntzak interbenitutako erreproduzio hutsera murriztu ditu. Finean, lege egitsmo honek emakumeak gutxiesten ditu; haien borondatea eta haien bizitzarekiko kontrola haien eskuetatik kendu eta Estatuaren tutelapean ezarri.

Gaur egun, haurdunaldia bilatu gabe (nahi izan gabe) haurdun gertu izan ohi da haurdunaldia etetea arrazoi nagusia Bada, kontrarreformak emakume guzti horiek ama izatera behartu nahi ditu, emakume guzti horien bizitza baldintzatu. Eta, era berean, haurdunaldia bilatua izan arren, malformazioak edo gaixotasunak identifikatutako kasuetan erabakitze aukera ukatu nahi dute, edozein modulan haurdunaldiarekin jarraitzea behartuz. Bortxaketarik legokeen kasuean soilik baimendu nahi dute abortua baina horretarako salaketaren baldintza jarritz, jakin badakitenean bortaketa asko salatu gabe gertzen direla.

Noren izenean egin nahi dute basakeria hau? Noren hobe beharrez? Zalantzarik ez dago emakumeen bizitzak behintzat ez dituela bereziki kezkatzen. Izan ere, indarkeria matxistaren itzalpean erailtzen eta erasotzen dituzten emakumeen bizitzak ez dira Gobernu espainiarraren lehentasuna. Ez da neurri edo baliabide berezirik ezartzen etengabeko eraso eta erailketa hauekin bukatzeko. Era berean, emakumeen bizi-kalitatea okerrera doa, zerbitzu publikoak deuseztearekin batera emakumeen bizkar geratzen ari baitira gero eta zaintza-lan gehiago. Esaterako, PPren Espainiako gobernua pertsona dependienteentzako laguntzak deusezten ari da, izan helduak, adin txikikoak edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen bideratuak. Estatuak bere zereginetatik ezabatzen dituen zaintza-lanak familien gain geratzen ari dira eta, zehazki, familiako emakumeen gain.

Esanguratsua da, baita ere, kontrarreformarekin tematzen diren bitatean, prebentzioa lantzeari uko egiten diotela, haur eta gazteen hezkuntz afektibo-sexuala garatzeko baliabideak gero eta urriagoak baitira.

Edozein modutan, gauza jakina da (eta Munduko Osasunaren Erakundeak ere hala onartzen du) lege murriztaileek ez dutela abortu-kopurua gutxituko. Haurdunaldia etetea erabakitzen duten emakumeak klandestinitatera edo atzerrira joatea behartuko ditu. Baliabide ekonomiko gutxi dituzten emakumeek klandestinitatera joko dute, emakume izategaik jasotako bazterketari klase edo egoera sozio-ekonomikoaren abatu. Bestalde, kontrarreforman ezarri asmo diren abortatzeko baldintza horiek ibilbide eta tramite korapilatsuak ezartzen dituzte, haurdunaldia etetea unea atzeratuz eta emakumeon bizitza gaineko arriskuak handituz.

Beraz, PPren gobernuak, jaiotzearen eskubideak defendatzearen aitzakian, emakumeen eskubideak zapaldu nahi ditu, emakumeek bizitzea merezi duen bizitzak izateak ezer gutxi kezkatuta.

Emakumeen autonomiaren, bizitzaren eta gorputzaren aurkako eraso honen aurrean, Udal honek:

1. PPK aurkeztutako "Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako" legearen aurreproiektua gaitzesten du, atzerakoia delako eta emakumeen eskubideak urratzen dituelako.
2. Udal honek emakumeen autonomiarekiko eta, zehazki, ugalketarako autonomiarekiko duten eskubidearekiko kopromisoa berresten du. Haurdunaldia etetea erabakiak emakumeen borondatea izan behar du ardatz eta baldintza nagusi.
3. Eusko Jaurlaritzari/Nafarroako Gobernuari eskatzen dio emakumeek haien gorputzarekiko eta ugalketarekiko erabakiak askatasunez hartu eta gauzatu ahal izateko lege-babesa, osasun-babesa eta babes soziala bermatzea.
4. Udal honek, Haurdunaldiaren Borondatezko Eteteak osasun sistema publikoaren baitan egitearen aldeko hautua egiten du, pertsonal sanitarioaren kontzientzia objektua arautuz eta

aipatutako zentro publikoetan emakumeek haurdunaldiaren borondatezko eteterako duten eskubidea gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren talde profesionalak daudela bermatuz.

5. *Udal honek, martxoaren 3ko 2/2010 legearen baitan egiten den edozein aldaketa, emakumeentzat oinarrizkoak eta berezkoak diren eskubideak zabaltzera bideratu dadila eskatzen du, emakumeek ama izan ala ez erabakitzeko ahalmena izan dezaten.*
6. *Erreforma honi erantzun bateratu bat emateko mugimendu feminista eta emakumeen mugimenduak egindako lan itzelari errekonozimendua egiten dio, eta Udal honek bat egiten du eskubide hau babesteko mobilizazioekin.*
7. *Herritarrei dei egiten diegu emakumeen autonomiaren alde eta, zehazki, oinarrizko eskubide honen alde egin dezaten eta Espainiako gobernuaren kontrarreformaren aurkako mobilizazioetan parte har dezaten.*
8. *Honako pleno akordioa Eusko Jaurlaritzari/Nafarroako Gobernuari, Espainiar Estatuko Gobernuari eta Justizia Ministro den Alberto Ruiz Gallardoni helaraziko zaie. Euskal Herrian, 2014ko urtarrilean. Euskal Herria Bildu”.*

Irakurritako mozioa bozketara eramanik ondorengo emaitza lortzen da:

- ALDEKO BOTUAK: **SEI** (Bildu talde politikoa)
- AURKAKO BOTUAK: **BAT ERE EZ**
- ABSTENTZIOAK: **BAT** (EAJ talde politikoa)

Ondoren, EAJ talde politikoko bozeramailea den Kepa De la Iglesia Sanchez jaunak ondorengo mozioa irakurtzen du:

“EAJ-PNVREN UDAL TALDEAREN MOZIOA HAURDUNALDIA BORONDATEZ ETETEARI BURUZKO LEGEAREN ALDARAZPENARI BURUZ

ZIOA

2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa, sexu eta ugalketa osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzkoa, duela lau urte onartu zen adostasun sozial eta politiko zabalarekin .

Une honetan, Mariano Rajoyren gobernuak Lege Organikoaren aurreproiektua aurkeztu du, zeinen bidez Estatuan sexu eta ugalketa osasunari eta haurdunaldia borondatez etetearen inguruan indarrean dagoen legeria aldarazi nahi duen, aldarazpen horrek arbuioa Alderdi Popularraren alderdi barruan ere jaso duelarik .

Egin nahi den aldarazpena gizartearen zein alderdi politikoen gehiengoaren irizpideen kontrakoa da .

2/2010 Lege Organikoak lortu zuen adostasun zabala kontuan hartuta eta PPK une honetan Madrilen tramitatzen ari den Lege Aurreproiektuak jaso duen arbuioaren aurrean, EAJ-PNVren udal talde honek udal batzan eztabaidatzeko eta onartzeko aurkezten du honako

MOZIOA

Anoetako Udalak Estatuko Gobernuari eskatzen dio Estatuko Gobernuak 2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa, sexu eta ugalketa osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzkoa aldarazteko Lege Organikoaren Aurreproiektua erretiratzea”.

Irakurritako mozioa bozketara eramanik ondorengo emaitza lortzen da:

- ALDEKO BOTUAK: **BAT** (EAJ talde politikoa)
- AURKAKO BOTUAK: **BAT ERE EZ**
- ABSTENTZIOAK: **SEI** (Bildu talde politikoa)

Bi bozketen emaitza ikusi ondoren, Euskal Herria Bilduk aurkezturiko mozioa onesten da.

6.- IAT (ITV) LANGILEAK AURKEZTURIKO MOZIOA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Bildu talde politikoko zinegotzia den Mikel Ayerbe Gallurralde jaunak, IAT (ITV) langileak aurkezturiko ondorengo idatzia irakurtzen du:

“KETXUS SAN EMETERIO GARMENDIA 15.992.882-Q NANarekin, TÜV Rheinland Iberica S.A. dagozkien Urnieta eta Irungo IATetako langile batzordeko lehendakaria.

AZALTZEN DU:

TÜV Rheinland Ibérica S.A. derrigorrezko ibilgailuen azterketako zerbitzu publikoen ustiatze emakidaduna da EAEko 8 IATetako 2retan (Urnieta eta Irunen), Eusko Jaurlaritzako Industria sailak 30 urtez 1994/01/01 2023/12/31ra aktibitate honen ustiatzaile erregimenaren esleipena medio. Ibilgailuen azterketa teknikoan zerbitzu publikoan ezarririko kontzesio kontratuko erregimen juridikoan, bertan EAEko Industria zuzendariak zehaztutako lege eta arauak biltzen direlarik, Urnieta eta Irungo IATetako kontzesiodun TÜV Rheinland Ibericari ezartzen zaizkio zerbitzuaren inguruko xehetasun guztiak, EAEko IATetako langileen baldintza nahiz eskuduntzak zehazten direlarik.

Gipuzkoako IATetako langileen baldintzak zehaztu eta erregulatzen dituen marko legala, Gipuzkoako PRECO "greba amaierako" akordioa da, sei hilabeteetako greba ondoren, TÜV Rheinland Ibérica S.A. enpresa kontzesionario eta langile batzordearen artekoa. Bertan langileen lan baldintzen gain, aktibitatearen kudeaketa zuzena eta IAT zerbitzu publiko egokia eskaintzea bermatzen da.

Akordio honen iraupena 2011/12/31an amaitu zen eta enpresaren jarrera orain arte ezkorra izan da akordio hau berritu eta eguneratzeari dagokionez, horren ondorio dirá langileen geldialdi eta mobilizazioak, egoera desblokeatze aldera protesta moduan.

2012an IATko zerbitzuak 126 egunez izan du honen eragina, eta 2013an, 65 geldialdi egun eta ekainaren 15az geroztik orain bitarte 160 egun baina gehiago dira greba egunak, enpresak langileei akordio hau berritzeko aukera ematen ez dielarik.

Gatazkaren ondorioak herritarrentzat beste lurralde batetara joan beharra da IATa egitera, gehiengoa Nafarroara, bertan enpresa kontzesioduna TÜV Rheinland Ibérica S.A. delarik Doneztebe, Arbizu eta Berriozar kasu. Horrela gipuzkoar IATko erabiltzaileak bereak diren nafar IATetara joatera behartzen ditu eta bertan ordu luzeetako ilara itxaronaraztera. Beste zenbait gidarik aldiz ez dute IATrik egiten eta Irungo IATak eskaintzen dituen ordu apurren zain gelditzen dira (40 egun batez beste).

Ondorioz, 65 geldialdi egun eta 159 egun baina gehiagoko greba ondoren eta zerbitzua geldirik edo eskasiaz eskaintzen delarik bi gipuzkoar IAT hauetan 2013an, enpresaren kudeaketa pribatuaren jarrerak bultzaturik, gatazkaren amaiera ekarriko duen akordiora iritsi nahi ez duelarik. Ondorio moduan (kontzesio kontratua ez betetzearen arduraz gain) milaka gipuzkoarren eskubidearen kalte larria (2013an 80.000 baina gehiago izango dira gidari kaltetuak) EAEko administrazioak antolaturiko IAT zentroetara joaterik ez dutelarik.

EAEko administrazioagan kaltea azterketen fakturazioan dagokion kanona jasotzen ez duelarik.

Gipuzkoako foru aldundian kaltea fakturako jasotzen duen BEZaren etorria izango ez duelarik.

Errepideetako segurtasunean ere eragina du hainbat ibilgailu derrigorrezko IAT azterketa ikuskatu gabe dabiltzalako hauen gidariak beste lurralde batera ez joatea erabaki dutelako, administrazioak derrigorrezko tramite hau Gipuzkoan normaltasunez egiteko aukera bermatu behar duelarik.

Hau guztiagatik, IATen kudeaketa EAEko administrazioiko Seguritate Industrialeko Sailekoa izaki non kontzesio erregimena enpresa pribatuena den, Eusko Jaurlaritzako industria saileko zuzendariari dagokio IATen zerbitzuei buruzko hitzarmena betetzeko ardura zuzena. Denbora hau guztia igaro ondoren, ez da arrazoizkoa enpresari Gipuzkoako IAT zerbitzuak ez betetzea onartzea, aitzakiazat akordio batekin amaiera eman nahi ez dion gatazka hau erabiliz. Bestalde langileok ez dakigu Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak txostenik baduen, informaziozkoa bada ere, edo administrazioa beharturik dagoen auditoria eta azterketak bertan behera utziak dauden.

Urnieta eta Irungo langileak Industriari adierazi diote lehenbailehen adostasun batetara iristeko nahia horrela IAT derrigorrezko zerbitzu publikoa %100an eskaini ahal dadin baita oraingo marko legalaren berrikuntza egokia burutu dadila. Gatazkaren amaiera berehalakoa izango da enpresak langileek onartuak dituzten eskubideak errespetatzeko borondatea badu. Hau dela eta, Urnieta eta Irungo langileek legezko ordezkariaren bitartez:

Eskatzen dute:

Erakundeen babesa, behar beste mugimendu burutuz Eusko Jaurlaritzara presatzeko:

1. *Beharrezko diren egin ahalak burutu ditzan lehenbailehen TÜV Rheinland Ibérica S.A. enpresa kontzesiodunarekiko gatazka konpontzeko non milaka gipuzkoarri eragiten dien.*
2. *EAEko gidariei ibilgailuen azterketarako IAT zentroa libreki hautatzeko eskubidea bermatzea honetarako behar diren neurriak hartuz non zerbitzua epe eta modu egokian eskaintzen delarik eta funtzio hauetarako behar beste langilerekin, horrela kalitatezko zerbitzua eskainiko delarik.*

Ketxus San Emeterio Garmendia/Comité de Empresa”.

Irakurritako mozioa bozketara eramanik ondorengo emaitza lortzen da:

- ALDEKO BOTUAK: **SEI** (Bildu talde politikoa)
- AURKAKO BOTUAK: **BAT ERE EZ**
- ABSTENTZIOAK: **BAT** (EAJ talde politikoa)

Bozketaren emaitza ikusi ondoren, IAT (ITV) langileek aurkezturiko mozioa onestea erabakitzen da.

7.- BILDU TALDEAK, AZKEN ATXILOKETEI BURUZ AURKEZTURIKO MOZIOA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Aratz Luisa Urkola zinegotziak irakurri eta partaideek aho batez Bildu talde politikoa aurkezturiko ondorengo mozioa onesten dute:

“ADIERAZPENA.- Urtarrilaren 7an, Auzitegi Nazionalaren aginduz, 8 euskal herritar atxilotuak eta ondoren espetxeratuak izan ziren, ustez ETAko kide zirelakoan. Hortaz, iraganeko gertakari ziruditenak berriro ere errepikatu dira.

Horren guztiaren aurrean, udal honek honako hau adierazi nahi du:

1. Anoetako Udalak uste du era horretako jarduerak oztopo bat direla gure herriak gaur egun bizi duen testuinguru politikoan, bai eta bake eta bizikidetzaren demokratikoa ezartzeko prozesua irmotuko delako itxaropen zabalduan ere.
2. Anoetako Udalak eskatzen du errespetu daitezela euskal herritar guztien giza eskubideak eta eskubide zibil eta politikoak.
3. Anoetako Udalak eskatzen du berehala eman dadila prozedura horren gaineko ebazpen judiziala. Modu horretara, ez dira urratuko orain atxilo dauden pertsona horien eskubideak.
4. Anoetako Udalak euskal gizarte osoari eskatzen dio jarrai dezala lanean herritar horien eskubide guztien alde eta jarrai dezala eskubide horiek aldarrikatzen, areago testuinguru politiko honetan, denok egin behar baitugu bakea eraikitzeko eta irmotzeko”

8.- 2012 URTEKO AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzak jakintzat ematen du 2014ko urtarrilaren 17ko dekretua, zeinaren bidez 2012 Ekitaldiko Aurrekontu Propioaren Likidazioa onartzen den, eta honela dioena:

“DEKRETUA

Anoetan, bi mila eta hamalauko urtarrilak hamazazpi.

Udal honek 2012ko aurrekontuaren likidazioari buruz Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen txostena eta berau osatzen duen dokumentazioa ikusiri, eta bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honetako 2012ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2012-12-31n:		879.512,07
2.- kobratu gaeko saldoak 2012-12-31n:		253.220,44
Aurrekontuko zordunak:	254.036,19	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	- 815,75	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2012-12-31n:		709.296,80
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak	375.642,68	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	333.654,12	
- Aplikatu gabeko odainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2-3):		423.435,71
5.- Saldo kobragaitzak:		28.873,40
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5)		394.562,31
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		394.562,31

9- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	345.429,32
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza	- 566,97
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik	0,00
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik	0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):	344.862,35
14.- Txertatu daitezkeen kreditu garakinak	0,00
15.- Txertatu ezin diren kreditu garakinak	0,00
16.- Kreditu garakinak guztira (14 + 15):	0,00

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Hurrengo plenoari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran”.

9.- GALDE-ERREGUAK

Anoetako EAJ taldeak bultzaturiko eta “Diario Vasco”-n argitaraturiko artikulua berri ematen du alkateak. Bertan, udal gobernuari, 2014 urteko Aurrekontu Orokorra noizko prest egongo den galdetzen delarik. Era berean adierazten du, ez duela argitaraturiko idatzia ulertzen, gaia zenbait batzorde informatzailetan eta 2013ko azaroaren 25eko plenoan aztertua izan bait zen.

Eztabaida luze baten ondoren, Alkate-Lehendakari jaunak bilera amaitutzat ematen du arratsaldeko seiak eta berrogei minutu direnean, eta neuk, idazkariak fede eman.